



10. aldarrikapena 2013



Fibromialgiaren eta Neke Kronikoko Sindromearen 10. Aldarrikapena

2013

Maiatzaren 12a dugun honetan, ezer baino lehen, gure elkartasuna adierazi nahi diegu krisi ekonomikoaren eta oinarrizko eskubideen atzerakadaren ondorioak jasaten dituztenei, eta bereziki, gaixo daudenei, Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloko murrizketek haiei egiten baitiete kalte gehien.

Bestalde, Fibromialgia eta Neke kronikoko sindromea dugun gaixook gaixotasun horien aitortpena eta bizitza-kalitate duina izateko eskubidea aldarrikatu behar ditugu, "Aitortpena eta Bizitza Kalitatea" goiburua gure eginez, elkarreetako kideek proposatu bezala.

AITORPENA, erabat ezgai bihurtzen zaituen min eta neke handia bereizgarri dituzten gaixotasun horiek aitortzeak nolabaiteko ilusioa eta itxaropena ematen baitizkie gaixoei eta senideei.

BIZI KALITATEA, gaixotasun horiek berekin dakartzaten min bizi eta latzak ondorio pertsonalak, familiarak, ekonomikoak, laboralak eta sozialak baititu, EPIFFAC Azterketa epidemiologikoak erakutsi bezala:

- Diagnostikoa lortzeko 7 urtez itxaron behar izatearen kalbarioak eragiten duen mina.
- Familiarekin eta batik bat bikotearekin sortutako arazoen eta familiaren dinamika aldatu behar izateak eragiten duten mina.
- Lanaldiari aurre egin behar izatearen mina eta ezgaitasuna aitortzeko zailtasuna.
- Osasun- eta gizarte-ingurua motela eta ez oso lagungarria izatearen mina.
- Herri Administrazioek ez ulertzearen mina, gaixotasun horiek aitortzeari eta osasun- eta gizarte-neurriak hartzeari uko egiten baitiete.

Min horri aurpegi emateko, Fibromialgiaren eta Neke Kronikoko Sindromearen inguruko elkarrean eta federazioen solidaritatea dago, herritar eta gaixo gisa ditugun oinarrizko eskubideen alde borrokatzen baitute.





10. aldarrikapena 2013



Gaixook, gure aldetik, are gehiago baztertzen gaituzten aurreiritziak hautsi, eta gure lehentasunak aldarrikatzen ditugu: ikerketa, osasun-arreta hobetzea, diziplina anitzeko unitateak sortzea eta gaixotasunak aitortzea, EPIFFAC Azterketak adierazi bezala.

Izan ere, egiaz, gaixoaren profila emakume helduak dira, osasuntsu egon nahi dute, familia aurrera ateratzen saiatzen dira eta lanpostua zein duintasuna mantendu nahi dituzte.

Horretarako, euren gaixotasuna iker dadila eskatzen dute, sendagileak arreta egokia eman diezaiela, haien lan-inguruan egokitzapenak egin daitezela eta bidezko ezgaitasun-laguntzak eman diezazkiotela, lan egin ezin dutenean. BIZI AHAL IZATEA aldarrikatzen dute, besterik ez.

Pertsona horiek guztiak egunen batean bizitza bat izateko gai izan daitezzen, SENTSIBILITATEA, BORONDATEA ETA ERABAKIAK eskatzen ditugu, gutxieneko BERME batzuk ezartzeko fibromialgia eta neke kronikoko sindromea duten gaixoentzat:

- DENONTZAKO Osasun eta Gizarte Sistema bat, autonomia-erkidego guztietan Kalitatea, Irisgarritasuna eta Berdintasuna bermatuta dituen. Horretarako, beharrezkoa da gaixotasunak diagnostikatu, tratatu eta prebenitzeko protokolo bateratuak, lan-mundura sartzeko neurriak, ezgaitasunak eta minusbaliotasunak ebaluatzeko irizpideak, eta, hala behar denean, gizarte-laguntzak jasotzeko eskubidea ezartzea.
- IKERKETA publikoa gauzatzea eta ikerketa pribatua sustatzea, gaixotasun horien eragilea ezagutzeko, tratamenduak hobetzeko eta prebentzioa zein diagnostiko goiztiarra sustatzeko.
- ERRESPETUA, gurekin, gaixoekin, gure familiekin, elkarteekin eta arreta hobea eskaintzeko lanean eta trebatzen diharduten profesionalekin.

Horrez gain, MAIATZAREN 12a den honetan, elkarten bidez itxaropena bizirik mantentzeko borrokan ari diren pertsonei gure esker ona adierazi nahi diegu, gure eskubideak aldarrikatzen baitituzte eta gure duintasuna eta Gizarte Justiziarekiko konfiantza mantentzen laguntzen baitigute.

Era berean, gure familiei ere gure esker ona eman nahi diegu, gure alboan baitaude beti, ULERTUA EZ IZATEAREN eta EZINTASUNAREN mina partekatuz, euren zoria





10. aldarrikapena 2013



gurearekin uztartuz eta NORMALIZAZIORAKO bide —jada luzeegi— honetan gurekin borrokatuz. Gureganako MAITASUNAREN erakusle da hori.

ESKERRIK ASKO GUZTIEI.

2013ko maiatzaren 12a. Fibromialgiaren eta Neke kronikoko sindromearen Nazioarteko Eguna.

fibromialgiaren eta neke kronikoko sindromearen nazioarteko eguna

